

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 334/2020 Erabakia, uztailaren 21ekoa. Onespena ematea aldatzeari Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 802/2019 Erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen Araban berrikuntza sustatzeko 2020ko ekitaldirako laguntza deialdia (Araba Innova)

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 802/2019 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion Araban berrikuntza sustatzeko 2020ko ekitaldirako laguntza deialdiari (Araba Innova).

Deialdiko eskaerak aurkezteko epea ekainaren 18an itxi zen, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen duen administrazio epeen eteteak eraginda. Gerora, eta 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabetu egin da, alarma egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarraren 2. puntuaren bidez, eta haren zenbaketa berriro hasten da 9. artikulua bidez.

COVID-19aren pandemiak eta horren ondorioz ezarri zen alarma egoerak eragin oso negatibo eta aurrekaririk gabekoa izan dute jardura ekonomiko gehiengan. Egoeraren jakitun, Arabako Foru Aldundiak duela gutxi aurkeztu du "A Plana", zeina baita ekonomia suspertzeko asmo handiko plan bat, eta haren neurrien artean dago laguntza deialdi honentzat beste 300.000 euro bideratzea. Horrek esan nahi du ehuneko 20 baino zertxobait gehiago handitu dela haren aurrekontua, jakinda berrikuntzak zer nolako garrantzia daukan Arabako enpresen biziraupenerako. Horretarako, aurrekontu partida espezifiko bat onetsi da, A Planean jasoriko jardunen jarraipena egin ahal izateko.

Hona hemen zer xedatzen duen hasieran aipatutako 802/2019 Erabakiak: "Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera". Hortaz, igoera hori aurrekontuan aplikatzeko ez da behar beste deialdi bat egiterik.

Kontuan hartuta Araba Innova laguntza lerroa urte anitzekoa dela, eta hartarako bideratutako baliabideak handitzeko premia dagoela jasotako eskaerak estaltzeko, enpresei likidezia handiago emateko eta deialdiaren aurrekontuan errefortzu horren eraginkortasuna maximizatzeko, beharrezkotzat jotzen da aldatzea dirulaguntzaren aurrerakinaren ehunekoa; izan ere, ehuneko 50 izango da 2020an, eta ehuneko 50, 2021eko ekitaldiko konpromiso kredituaren kontura.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Araban berrikuntza sustatzeko 2020ko ekitaldirako laguntza deialdirako (Araba Innova) beste 300.000,00 bideratzea, zeinak erabiliko baitira Arabako Foru Aldundiaren 2020rako indarreko aurrekontu antolamenduko "20.1.20.1.15101.0801.7700002 Araba Innova enpresak. EGEF" partidako baliabideak indartzeko.

Bigarrena. Hau da gastuaren zenbateko osagarri hori babesten duen aurrekontu partida: Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastu aurrekontuko "15101.0801.7700004 A Plana. Araba Innova indartzea. EGEF" partida, 15-111 lerroa. Xedapen erreferentzia: 20.1.20.105.2549/000)

Hirugarrena. Deialdiaren 13. artikuluko 2. eta 4. apartatuak aldatzea (Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea), ordainketaren ehuneko berriak ezarrita:

"13.2. Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, ebazpena onartutakoan eta erakunde onuradunak 12. artikuluan aipatzen den onarpena aurkeztutakoan ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa."

"13.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordain dezan eta lehenengo ordainketa justifikatuztat eman dezan, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu [...]"

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Foru Gobernu Kontseiluari, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Deialdiaren aldaketa hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea era Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta

Demografia Erronkaren diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA